

## **Martin Ugalde: "Historia ezagutu behar da pentsatzeko eta erabaki zuzenak hartu ahal izateko"**

Juan Luis Zabala

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-03-10: 30-31.

Duela hiru urte Euskaltzaindiak ematen duen BBK saria irabazitako eleberria berrargitaratu berri du Martin Ugaldek, Elkar argitaletxearen eskutik. BBK eta Euskaltzaindiak plazaratu zuten lehen aldiz liburua, 1994an, baina Elkarrek argitalpen txukunagoa, zainduagoa eta hedapen handiagokoa jalgi du plazara. Aitzakia ona iruditu zaigu Euskal Herriaren historia hain sakon ezagutzen eta sentitzen duen idazle nekaezin honekin mintzatzeko. Kazetari, idazle, politikari eta oroz gainera kultur gizon den Ugaldek badu zeresanik.

Hondarribiko bere etxean hartu gaitu Martin Ugaldek, eta Hendaiarantz begiratzen duen balkoi zabalaren aurrean mintzatu gara honetaz eta hartaz, aise eta luze. Bai baitu zer kontatua idazle andoaindarrak, denak hemen biltzea ezinezkoa bada ere.

– *Pedrotxo* eleberriak garai historiko bat islatzen du, gerra ondorengoa Euskal Herrian. Garai hura gogora ekartzea izan al da zure asmoa?

– Erbestetik itzuli nintzenean, 1969an, ikusi nuen hemen herriak ez zuela ezagutzen Euskal Herriaren historia, neuk ere ezagutzen ez nuen bezala, noski. Nondik gatozen eta zer garen jakin beharra nuela iruditzen zitzaidan, eta hori ikasteko eta ikasitakoa zabaltzeko idatzi nuen *Sintesis de la Historia del País Vasco*, eta gero Planeta argitaletxearen eskutik etorri zitzaidan enkargua *Historia de Euskadi* idazteko, sei tomoko obra mardula. Lau urte eman nituen gogor lanean hura egiteko, presa baitzuten argitara emateko. Lan hura amaitu nuenean, lehendik egina nuen *Síntesis* liburua osatu egin nuen, lau urteko lan hartan bildutako datuekin. Lan haien ondoren, Euskal herriaren historia pixka bat ezagutu nuen. Baina bi bide daude gauzak ezagutzeko: bata, zientifikoa, datu zehatzetan oinarritua; eta bestea analisi introspektiboa, zenbait gauza ezagutzeko askoz egokiagoa. Sentipenak, adibidez, ezin dira neurtu, eta sentipenek asko erakusten dute. Idazle denak badaki hori eta hori landu du. Horregatik, nire haurtzaroko zati baten garaia nobela baten bidez kontatzea pentsatu nuen. Hori izan zen nire asmoa *Pedrotxo* idaztean. Neure herrian beste mundu bat ezagutu nuen gerra ondoren, eta mundu hori erakutsi nahi izan nuen.

– Dena den, nobelako *Pedrotxo* ez zara zu.

– Nik osaba bat nuen, asko maite nuena. Amaren anaiarik txikiena zen. Pedro, linterneroa. Sosa eman beharrean hamar zentimoko handiak ematen zizkigun. Musu handiak ematen zizkigun. Beti irribarrez zegoen, sekula ez nuen haserre ikusi. Hernaniko bandan bonboa eta txintxina jotzen zituen. Gauza apalago eta xumeagorik ezin. Baina ikustekoa zen zer pozik egoten zen hura bonboa eta txintxina jotzen. Beti

geratu zait buruan irudi hori. Nik askotan pentsatu izan dut neroni izan nintekeela Pedrotxo, hura izan zen bezalako izan nintekeen ni. Nobela idazteko, dena Pedrotxoren begietatik eta burutik ikusten ahalegintzea pentsatu nuen. Pedrotxoren begietatik ikusten ahalegintzeak perspektiba bat ematen zidan eta konturatu nintzen ez zela hain gauza zozoa. Garai hartan oso elementala zen gure herria. Pedrotxo asko zegoen. Gerra aurreko nire eskola eta gerra ondokoa, pobreak izan ziren biak. Garai hartan oso jende gutxi zen eskolatua. Baina ezjakintasun hori ez da barre eragiteko, burla egiteko aipatu behar. Bere zentzu politiko, sozial eta literarioan ulertu behar da.

- Gerra ondorengo garai hori ahaztuegia ez al dago gaur egun?

- Dudarik gabe. Historia ezagutzea oso garrantzitsua da. Historia ezagutzeak beste dimentsio bat ematen dizu. Gaur egungo gazte askok ez dute garai hura ezagutu eta ez dute garai hartaz ia ezer ere irakurri. Ezagutzen ez dena ez da existitzen. Hori izugarria da. Historia ezagutzen ez duenak azkeneko atentatua baino ez du buruan eta ez du kontuan hartzen lehen zer izan zen eta nondik datorren hori. Horrela ez dago pentsatzerik, ez dago erabaki zuzenik hartzerik. Gure mundu hau aspalditik dator eta lehen esandako gauzek oraindik ere beren pisua dute. Kanean istiluak sortzen dituzten gazteek ez dute denborarik izan politikoki formatzeko. Ez dute ezagutzen nondik nora datorren eta nondik pasatu den ikurrina, eta euskal kontzeptuak direla eta zer negar egin diren eta zenbat odol isuri. Kortsoen artean gauza bera gertatzen ari da. Aspalditik ari dira borrokan baina borrokan sartu diren, azkenek azken kontsigna baino ez dakite. Badakite zer egin behar den baina ez zergatik. mekanikoki egiten dute beraz. Toki guztietan daude kontzientzia historikoaren faltaren kalteak.

- "Hau ederra da, egiako abentura!, zinerako modukoa..." dio don Inaziok Pedrotxori, honek bere ordura arteko ibiliak kontatu eta gero. Eleberri hau filme bat egiteko oinarri egokia izan daiteke beraz.

- Bai, nik uste dut baietz. Pasarte guztiak ipuinak bezalakoak dira eta elkarrizketak biziak. Nik uste dut egoki dagoela zinemara eramateko.

- Pozik emango zenioke, beraz, zure baimena norbaitek nobela hau zinemara eramatea proposatuko balizu.

- Bai, noski. Dudarik gabe. Baina hemen ez da zinemarik egiten. Ez dago dirurik.

- Memoriak idazten hasi zara.

- Nik ez nuen horrelako asmorik. Joan Mari Torrealdaik egin zidan proposamena. Soziologo gisa, oso ondo ezagutzen du gure herriaren historia, oso sakon, eta galdera batzuk egiten bazizkidan ea erantzungo ote nizkion galdetu zidan behin. 'Zuk, Martin, Euskal Herriko etapa politiko asko ezagutu dituzu', esan zidan. 'Baita exilioa ere. lehendakari guztiekin izan duzu tratua. Partiduko kargu guztietatik pasatu zara. Herriaren bilakabidea nola ikusi duzun jakitea oso interesgarria da niretzat, soziologo gisa'.

Hasita gaude lanean. Joan Marik galderak egiten dizkit eta nik idatziz erantzuten diet galdera horiei. Nire erantzunak jaso ondoren galdera berriak planteatzen dizkit, eta horrela hutsuneak betetzen goaz. Saiatzen naiz hark eskatzen didan guztia ematen, eta beti garai hartan zer pentsatzen nuen adierazten dut, garai hartako azentuarekin idazten dut. Garaiaren pisua eta gariaren zabalera bere neurrian ematen ahalegintzen naiz. Horretan ari naiz orain eta 300etik gora orrialde idatzi ditut dagoeneko, eta beste 150

bat faltako zaizkit gutxi gora-behera. Gordeta neuzkan gutun guztiak ere eman dizkiot Joan Mariri. Politiko askorekin izan dut nik harremana. EAJkoekin batez ere, eta lehendakari guztiekin, eta haiengandik urte luzeetan jaso ditudan gutun guztiak gorde izan ditut beti, paper guztiak gordetzeko ohitura baitut.

– Baina narratiba ez duzu erabat alboratuta utziko.

– Venezuelan 40 ipuin idatzi nituen. Mundu osotik joan izan da jendea hara exiliatuta, hizkuntza eta arazo politiko desberdinekin, eta horretan oinarritu ziren nire orduko ipuin haiek. Orduan ezin nuen Euskal Herriaz ezer idatzi, ez zitzaidan ateratzen hori. Kanpoan gure egoeraren kritika egiteko ez nintzen libre sentitzen, ezin nituen Euskal Herriko jendearen pobrezia eta tragediak kontatu, gertuegi nituelako, eta, horregatik, besteenak idazten nituen, beste herrietako exiliatuenak. Orduan ez nekien baina gero konturatu naiz, kritikoki, zergatik egiten nuen hori.

Euskal Herrira etorri nintzenean, nahiz eta ni beti euskalduna izan naizen, euskara ez nuen landua. Zientzia eta kulturako liburuak idatzi nituen erdaraz lehen 10 urteetan, baina nire euskara hobetu eta landu ondoren bi ipuin liburu idatzi nituen, *Mantal urdina* eta *Bihotza goikoan*. Orain hirugarren bat ari naiz idazten, beste ipuin mota bat landuz. Ipuin bat falta zait bilduma bukatzeko baina ez dut presarik eta ez dakit noiz amaituko dudan. Hori da nire aurreneko mundua, gehien gustatzen zaidana, ipuinena. Bi eleberri ere idatzi ditut, *Itzulera baten historia*, Ana Mari nire emaztearen bizipenetan oinarritua, exilioari buruz eta *Pedrotxo*, gure herriaren gerraosteko egoerari buruz.

– Egunero idazten duzu?

– Bai, hori da nire lana, eta gainera komeni zait zer idatzia izatea. Lagundu egiten dit arnasa hartzen. Garrantzitsua da niretzat lan luzeak edukitzea egiteko. Lan motza amaitu egiten da eta goizean ohetik jaiki eta ez baldin badakit zer idatzi behar dudan zerbait falta zaidala sentitzen dut, lurra falta zaidala, ibiltzeko eta gauzak esateko lurra. Gauzak esan ahala, idatzi ahala, lur hori nirea da. Pentsatzeko ere idatzi egin behar dut. Idatzi gabe pentsatutakoa galdu egiten dut. Hitz egitea asko kostatzen zait, azkarregi egin behar da burutik ahorako pausoa eta lanak ematen dizkit gauzak esplikatzeak, baina eseri eta ordenadore aurrean jarrita luzexeago egiten da burutik eskurako pausoa eta hortxe aritzen naiz, taka-taka, etengabe. Pentsatzeko ziklo osoa da hori.

– Hasieratik egon zara EGUNKARIAren alde eta egun Administrazio Kontseiluko lehendakari zaitugu. Zer moduzko esperientzia izan da EGUNKARIArekin bizi izan duzuna?

– Oso ona, dudarik gabe. Nik hasieran ez nuen uste horrelakorik lortuko genuenik. Beren garaian Aitzol eta Lizardik ere nahi zuten euskarazko egunkaria eta edozein euskaldun konturatzen da egunkaria elementu minimoa dela gure hizkuntzaren heldutasunerako. Garaikoetxea lehendakari zela, euskararen sustapenerako kontseilari izan nintzen, Gasteizen, eta orduan *Argia*-ko jendea aurrean izan nuen, egunkaria noizko izango zen galdezka. Ni konturatzen nintzen euskarazko egunkariak *Argia*-tik sortu behar zuela. Egunero-egunero ari baitziren erakusten euskara maite zutela. Baina Jaurlearitzak ez zuen dirurik horretarako.

Gero, nik Gasteizko kargua utzi eta gero, Joxemi Zumalabe nirekin harremanetan jarri zen. Euskarazko egunkaria sortzeko garaia zela iruditzen zitzaiela esan zidan, estudioak eginak zituztela eta bideragarria ikusten zutela. Nik esan nion zaila ikusten

nuela ondo ateratzea baina inondik posible ikusten bazen aukera bat, ni laguntzeko prest nengoela. Horrelaxe hasi zen EGUNKARIArekin dudan harremana eta pixkanaka proiektua aurrera ateratzen ari da. Joxemi zenarekin konfiantza osoa izan nuen hasiera-hasieratik eta ez genuen inoiz diferentziarik izan.

Orain jende guztia konturatzen da euskarazko egunkaria beharrezkoa dela. Nola kenduko duzu ba? Orain ezinezkoa da kentzea. Orain ezin da ulertu gure herria euskarazko egunkaririk gabe. Pauso handia eman da aurrera eta ezin da atzera jo berri.

### **"Duintasuna falta zaie egungo politikoei"**

Euskal Herriari buruzko kezka politiko bizia izan du beti Martin Ugaldek, eta oso gertutik ezagutu ditu Francoren garaiko zein Francoren ondorengo lehendakariak, eta baita haiekin lan egin ere. Jose Antonio Agirrerri askotan lagundu zion Martin Ugaldek. Berak prestatzen zituen lehendakariak Caracasen egiten zituen prentsaurrekoak, eta maiz mintzatzen ziren elkarrekin biak. Garaikoetxearen Jaurlaritzan, berriz, euskararen sustapenerako kontseilari izan zen idazle andoaindarra.

Baina Jose Antonio Agirrerren eta Francoren ondorengo lehendakarien artean "oso diferentzia handia" dagoela uste du Ugaldek. "Agirre gerran hiltzeko zorian izan zen, ihesean ibili behar izan zuen eta sekulako duintasuna erakutsi zuen beti. Ezin da horrelako figura bat administradore batekin konparatu. Agirre hil zenean gogoan dut nola egin nuen negar, Caracasen, eta nola egin zuten besteek. Bagenuen ilusio hori. Geroztik izan diren lehendakariak aurarik gabekoak izan dira. Leizaola ere zintzoa, langilea eta euskalduna zen, baina ez zuen Agirrerren indar hura".

Gaur egungo politikoengan "duintasuna" falta dela uste du Ugaldek. "Ez dute defenditzen herrian benetako mamia duena, euskaratik hasita. Administratibo hutsak dira. Agirrek sekulako indarra zuen hitz egiten hasten zenean. Ardanzak hitz egiten ez du batere indarrik eta euskaraz ere ez du lehendakari batek behar lukeen neurrian ikasi".

Dena den, aitortzen du ugaldek errazagoa dela klandestinitatean aritzea egungo politikoei planteatzen zaizkien arazoei aurre egitea baino. "Gaurko politikoei oso lan zaila dute. Nik politikan egin nuen lana askoz errazagoa izan zen. Francoren aurka egotea erraza zen. Hor ez zegoen dudarik, denok ginen antifrankistak. Gaur egun anbiguitate handiagoa dago eta politikan gezurra eta faltsukeria behar da. Politikarako gogoak kendu egin zidaten eta garaiz utzi nuen, zorionez, bestela politikak ez baitzidan utziko egin dudana egiten".

1969an Euskal Herrira itzuli zenetik gaur arte, egin nahi zuen guztia ez duela egin aitortu arren, egin nahi zituen gauza asko egin dituela uste du Martin Ugaldek. "40 liburu idatzi ditut, eta lan asko egin, batzuk lehen aldiz egiten zirenak. Franco ez zen nik nahi nuen bezala hil, ezta nik nahi nuen bezain azkar ere, baina hil zen, eta geroztik gauza asko egin dira. Ni horren lekuko izan naiz eta nire literaturaren bidez lekukotasuna eman eta eragina izaten saiatu naiz. Torrealdaik nahi duen bezala bukatzen badugu, nire memoriak ere euskaldun baten urte askotako urratsak erakutsiko dituzte. Ezin naiz kexatu, pozik naiz egin dudana lanarekin".